Urnietako udala

# ONLINE TRAMITEAK BURUTZEKO GIDA

Urnietako Kirol Instalakuntzetan hainbat zerbitzu online kudeatu ahal izango dira aurrerantzean. Garai hauetan, muskulazio gela eta kardio gelak ditugu on line bidez hitzorduak hartzeko. Aurrerago begira beste gauza batzuk ere aktibatuko ditugu, ikastaroen izen-emateak, ordainketak,…

***Aipatutako edozein zerbitzutara (igerilekuak, muskulazio-gela edo kardio-gela) joateko asmoa duen edonor erregistratu egin behar da. Erabiltzaileen datu-basean horrela jasota gera dadin.***

Urnietako udaleko webgunean leku fijo batean ipiniko dugu eta hortik zuzenean hasiko gara prozesu hau egiten:

https://www.urnieta.eus/es/ → **http://tramiteak.buruntzaldea.eus/**

- **Hitzorduak**: Botoi honen bitartez herri bakoitzeko kiroldegiko espazio eta zerbitzuen aurretiko hitzordua egiteko plataformara sartuko gara. Bertan, gimnasiorako hitzordua muskulazio gelarako aurretiko hitzordua eta igerilekurako hartu ahal izango dute erabiltzaileek.

Web orrian sartzerakoan, Buruntzaldea Kirolaken kiroldegiak agertzen dira, bakoitzaren zerbitzu eta erreserba aukerak agertuko direlarik. Interesatzen zaiguna klikatuko dugu eta prozesua hasiko da:




**IDENTIFIKAZIOA**

Hitzorduak hartzeko edo jardueretan izena emateko, erabiltzailearekin identifikatzea beharrezkoa izango da, lehenengo aldian sartu ondoren sistemak erabiltzailea gogorarazteko aukera ere dagoelarik. Identifikazio hau bi eratan egin daiteke:

1. **BAKQ eta Izenpe** (etorkizunean plataforman egin beharreko tramite guztiak burutzeko gomendagarriena)
2. **Webguneko Erabiltzaile eta pasahitza**, plataforman alta emanez



## 1.- *BAKQ edo Izenpe bitartez*

“Hemen” dion estekari emango diogu, dugun ziurtagiri motaren arabera bideratuko gaituelarik:




B@KQ botoiari eman ezkero, ondorengo datuak betez identifikatuko gara:




Izenpe edo beste Ziurtagiri digitalak botoia sakatu ezkero, txartel bidez ordenagailuan identifikatuta dugun erabiltzailea hautatuta identifikatuko gara.




2.*<u>- Webguneko Erabiltzaile/Pasahitzak erabiliz</u>*

Dagoeneko altan eman bagara, gure Kodea/Nan eta pasahitza sartuz zuzenean sartuko gara gure espaziora, nahi ditugun tramiteak egin ahal izateko. Lehen aldia bada, “Izena eman” botoia sakatuz formularioa bete eta gure erabiltzailea sortu ahal izango dugu.




## HITZORDUA HARTZEA

Gure erabiltzailearekin identifikatu ondoren, gure datuak jasotzen dituen atalean sartzen gara. Bertan ere hautatu dugun herri eta zerbitzuari dagozkion aukerak agertuko zaizkigu, zerrendatik aukeratu ahal izango ditugunak:



Urnietako udala

Gure intereseko jarduera edo espazioa aukeratu ondoren Urnietan(igerilekua botoia), ondorengo taulan agertuko zaizkigu, libre dauden plaza kopurua eta erreserbaren iraupena adieraziko delarik:

***Ohar bezala begiratu beti ondo erreserbatu nahi ditugun eguna eta ordua***




Nahi dugun ordu eta eguna aukeratzen dugunean, erreserba konfirmatzeko ondorengo taulatxoa aterako zaigu:



Plazak aukeratu adierazten duenean, familia kide batek (titularrak), beste guztien ordua hartu dezake, plazak 1 baino gehiago jartzen baditugu hurrengo laukia agertzen zaigu.




Familiako kide ezberdinen aukeraketa egin eta denontzako plaza gordetzen da.

***<u>Familiako kideen artean (titularra aldatzea nahi bada), beheko irudian agertzen den botoi honetan klikatu behar da. Bazkide trukaketa, titularra aldatzen da eta berak egin dezake erreserba.</u>***



Urnietako
udala

Aukeratu nahi genuen ordua eta espazioa hori zela konfirmatu ondoren, azken berrespena egingo dugu hitzordua konfirmatzeko:




***<u>Behin hau egitean email bat iritsiko zaigu hitzorduaren datuekin. Email hortan bertan ere hitzordua anulatzeko esteka agertuko zaigu, hitzordua erabiltzea ezinezko bazaigu horren abisua emateko eta beste erabiltzaile batentzat erabilgarri geratu dadin hitzordu hori.</u>***